

FUNTSEZKO JARDUERAK:

Gaueko autobus zerbitzua ematea da enpresaren oinarrizko aktibitatea.

Ez dugu beste enpresarik azpi kontratatuko, izan ere gure enpresa gai da autobus zerbitzu bat emateko behar diren ezaugarri guztiak aplikatzeko. Hala ere, autobus gidari bezala, gutaz gain, beste bi langile azpi kontratatuko ditugu.

Errentagarri aterako zaigu bi langile azpi kontratatzea. Gaueko autobus zerbitzua emateko gutxienez bost langile egotea beharrezkoa iruditzen zaigulako eta enpresako partaideak hiru garenez, beste bi kontratatzea beharrezkoa egiten zaigulako. Gainera ez digu kostu handirik sorraraziko.

Gure berri izateko, internet sarean gure webgunea irekitzeko aukera izango dute eta bertan informazio guztia izango dute, ordutegiak, prezioak... Kontaktuan jarri nahi badute bertatik idazteko aukera ere izango dute eta gainera telefono bat izango dute, deitu eta zuzenean gurekin kontaktatzeko.

Guk eskainitako web orrialdean aukera emango dugu beraien kexa guztiak azaltzeko. Guk, kexa horiek gmailez jasoko ditugu eta ahal dugun azkarren bertan erantzungo dizkiegu.